

UDALTZAINGOA

GIPUZKOAKO IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKOAK SORTUTAKO ARAZOARI BEGIRA UDALTZAINGOAREN IRIZPIDEA

Gipuzkoako ibilgailuen azterketarako tailerretan sortu den lan kargak erabiltzaileengan kezka handia sortu du, legeak behartzen duen epearen barnean ezin izango dutelako egin dagokion azterketa. Tailerretan ematen ari den pilaketa eta hauei aurre egiteko baliabide nahikorik ez izateak, gidarien kalterako baino ez da izaten ari, jakin badakizuelako, epe barruan azterketa ez pasatzeak dituen ondorioak (200 euroko isuna eta egoera larrietan ibilgailuaren ibilgetzea). Ibilgailuek baldintza tekniko egokietan ibiltzea derrigorrezkoa da bide segurtasunaren ikuspegitik baina egoera berezi honek ere aukera bereziak aztertzeraz garmatza.

Gipuzkoako tailerretan ematen ari den atzerapen handi hau azaltzeko hainbat arrazoi daude: azken hamar urteotan eman den ibilgailuen igoera, ibilgailu zaharrek maizago pasatu behar izatea, ziklomotorrek ere azterketa hau 2007tik pasatu behar izatea eta Europar Batasunak ezarritako arau berriak. Guzti hauek sortu dute egungo pilaketa eta Gipuzkoan dauden hiru tailerrek (Bergara, Urnieta eta Irun) ezin diote erantzun gain karga honi.

Kolapso egoera hau arintzeko hasiak dira neurriak hartzen (Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dago) eta tailer berriak irekiko dituztela iragarri dute (Zarautzen behin behinekoa eta Irungoa indartu). Bitartean, pilaketak jarraituko du eta topatuko ditugu gure eguneroko zereginetan IAT azterketa garaiz (markatutako epearen barruan) pasatu ez dutenak.

Egoera honen aurrean Hernaniko Udaltzaingoaren irizpidea honakoa izango da :

1. IAT azterketa ezarritako epean pasa ez duten ibilgailuen salaketarekin jarraituko dugu orain arte bezala.
2. Salaketa jarri ostean, ibilgailuen titularrek salaketa jarritako dataren aurretik azterketa egiteko txanda hartuta dutela ziurtatzen badute eta data hau azterketaren egunekoa baino lehenagokoa bada (ahozkoak ez du balio) ez dugu tramitatuko.

Beraz, kontuan izango dugu atzerapenez azterketa egingo dutenen egoera, beti ere txanda hartuta dutela justifikatzen baldin badute epea bukatu aurretik; beste kasuetan ohiko bidea jarraituko du salaketak. Irizpide berri honen azalpena, gidarien elkarteek Eusko Jaurlaritzari luzatu dioten eskaeren ildoan partekatzea da, tailerren gain kargaren ondorioa gidariek jasan ez dezaten.

Hernani, 2019ko maiatzaren 10a

Andoni Mirena Pikabea Letxundi
Udaltzaingoaren zuzendaria